

Cost-killing

Kontzeptu eta lan arlo berri bat deskubritu dut egun hauetan, etorkizun handikoa omen: *cost-killing* deitzen da. *Cost-killersak* aholkulari bereziak dira, enpresei proposatzen dietenak beren behargabeko xahupenak hesitzea eta deuseztatzea, edo berdin ere beren errezetak optimizatzea. Hots, performantzia ekonomikoan aditu paregabeak omen dira *cost-killersak*.

Maleruski, fama txarra dutela deitoratzen dute, jendeak uste duelako horien azterketen ondorioz direla hainbat hilabete sari apaldu, edo hainbat enplegu desagerrarazi. Usteak erdi ustel, diote *cost-killersek*: ez dituzte langileak erasotzen, baizik eta nagusiei laguntzen enpresak hobeki kudeatzen. Beren fede onaren aldeko elkarriketa eta artikulua irakur- eta entzungai dira hedabide berezitueta. Usteak erdi sano, dute adierazi alderantziz Carrefour multinazionalako greba egileek joan den hilabetean, *cost-killing* metodoen ondorio zuzenak jasanik esplotatuak direlakoan.

Beldurgarriena haatik da, ene ustez, irakaskuntza eta osasuna arloetan ere nagusitu dela *cost-killinga*. Urtez urte lan baldintzak okertuz doaz, urtez urte administrazioak ulertarazten digu langileria beste edozein parametro gisa hartzen duela, beste edozer gisara arrazionalizatu daitekeena: honi lan karga emendatuko zaio, horri paga murriztuko zaio, horrek berea egin du eta botako da. Aurretik finkatu estatistiken arabera behar dira eskola azterketak gaindiarazi edo gainditu, eri-etxeetan artamenak segitu ala ez. Irakasle, artatzaile, ikasle edo erioi esplikatzeko gutako bakoitza zenbat kostatzen zaion Estatuari, eta zenbateraino gure buruaren sakrifika-tze beharra duen gizarteak. Bereziki baserri aldeko gune “zokoratueta” bizi gaudelarik, nolaz ez.



Katixa Dolhare-Zaldunbide

IDAZLEA



Antton Olariaga

Enpresari edo egitura publiko zenbait hasi dira, halere, “lanean ongizatearen” aldeko jardunaldiak antolatzen. Baina gehienetan, ez jendetasunez, bai performantzia, optimizazioa eta arrazionalizazioaren izenean. Euskal Herrian ere horrelako kanpainak ezagutu ditugu duela zenbait hilabete: “Nahi duzu zure enpresaren emaitza hobetu? Gogoan izan langileen ongizatea lanean!”. Bistan da zoriontzekoa dela langileen oinaze fisiko eta psikologikoei adi egon daitezen manatzaileak, baina oldargarria da sistema kapitalistaren izenean gertatzea, eta ez jendetasunaren izenean. Ongizatea bera *cost-killingaren* xede bihurtua da, hondarrean kapitalismoaren eragin suntsigarrien onetan.

Cost-killers batzuek, halere, barne etika edo kuraia aski badute lanbidez arrunt aldatzeko. Kanaldude herri telebistan ari den Pankika Maitiak plazaratu du egun hauetan *Ta qué canté era montanha* (Mendiak kanta dezan) dokumentala, Barétous, Aspe eta Ossau ibarretako laborantzaren etorkizunaz. Horretan agertzen da gizon bat, 35 urte arte Bordelen finantza-aholkulari zena; lana zuen jende biziki aberatsen zergak apaltzen laguntzea. Bat-batean, dena utzita artzain plantatu zen Biarnon, diru, trebetasun eta integrazio arazo guziei aurre eginez. Filmean, negarrak heldu zaizkio bere hautua azaltzean: bere bizitza irrazionalki desbideratu zuen, bere barne sentimenduak eta behar intimoenak entzunez, askatasun, maitasun, bake eta egiazkotasun gosez. Hots, bizitzaren gozatzeko gogoz.

Gisa horretako inizatiba pertsonaletatik at, ea ba kolektiboki erran diezaiegun lehertzen gaituen sistema kapitalistaren sostengatzaileei: *stop killing!* ■